

## Aiherra



Christophe Harguindeguy (Abaratiako trebetzailea),  
Johane-Oihenart-Etxart eta Mendosa Amestoy (Arg Abaratia)

### Sortze

Urtxintxa etxean bizi diren Aline Pamart eta Nicolas Laffitte andere-jaunek bigarren haurño bati ongi etorri egin zioten, joan den ekainaren 20an. Ainara izeneko alabaren ondotik, horra orain Intza beste alabarekin direla. Gure gogresmenak burasoei eta bizitza luze eta loriosa Intza ttipiari.

### Nahas mahas

-Joan den igandean, Euskal Herriko txapelketaren kondu, finala galdu zuten 12/30 Abaratia

pilota batasune-ko Johane Oihenart-Etxart eta Mendosa Amestoyk, kimuak B saillean, sarrarren aurka, Anhauzeko plazan. Halere gure gazte txapelketa ederra egin dute. Segi aitzina!

-Ostegunean, uztailaren 21ean (19:30), Iparraldeko Pilota batzordeak propo-

saturik, Abaratiako pilotari eta trebatzaileentzat, bilkura Denen Etxean. Lehen partean Henri Errandonea idazkari orokorrak eta Laura Petrissans garapenaren arduradunek, urteko norabideak aurkeztuko dituzte. Bigarren partean parte hartzaileei hitza emanen zaie proiektuez trukatzeko gisan.

-“Arberoako ostiralak” saillean, Aiherran, ortzirale astirian (19:00), pilota partidak eta dantzak. Ongi etorri deneri.